BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

4563

AGINDUA, 2026ko urriaren 13koa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira ikertzaile doktoreek mugikortasun-egonaldiak egiteko laguntzen oinarri arautzaileak eta 2027. urterako deialdia.

Ikerketa-jarduera nazioartekotzea funtsezko elementua da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema indartzeko eta haren eragileen lehiakortasuna hobetzeko. Ikertzaileen mugikortasunak erraztu egiten du ezagutzak eskuratzea eta transferitzea, bikaintasuneko azpiegitura zientifikoetarako sarbidea izatea, nazioarteko lankidetza eta sare berriak ezartzea, bai eta ikertzaileen garapen profesionala eta zientifikoa ere.

Testuinguru horretan, unibertsitateetan, ikerketa-zentroetan edo garapen teknologikoko zentroetan eta ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduera duten enpresetan egindako aldi baterako egonaldiek aukera ematen dute Euskadin garatutako ikerketaren kalitatea indartzeko, ezagutzaren sorrera bultzatzeko eta metodologia, gaitasun eta ikuspegi berritzaileak txertatzea errazteko. Era berean, ospe handiko erakundeekin lotura zientifiko egonkorrak ezartzen laguntzen dute, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen nazioarteko proiekzioa bultzatzen dute.

Agindu honen xedea da ikertzaile doktoreen mugikortasuna sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko harrera-erakundeetan egonaldiak egiteko laguntzak emanez. Horrela, ikertzaileen hobekuntza zientifikoa eta profesionala lortzen eta erakunde onuradunen ikerketa-gaitasunak indartzen lagunduko da.

Bestalde, deialdi hau administrazio publikoen dirulaguntzak emateko jarduera arautzen duten printzipioen arabera ebatziko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean ezarritako baldintzetan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren oinarrizko manuekin bat etorriz (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatzen du lege hori), bai eta laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenekin bat etorriz ere, eta erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira agindu honetan ezarritako irizpideen arabera.

Era berean, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren 2026-2029rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoak deialdi hau jasotzen du 1. helburu estrategikoa betetzeko dirulaguntza-lerroen barruan, I+G+B arloan giza baliabideak sustatzeari buruzkoa (Dirulaguntzen Plan Estrategiko hori Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2026ko urtarrilaren 20ko Aginduaren bidez onartu zen, eta sailaren euskadi.eus webgunean argitaratuta dago). Deialdi honek helburu hori lortzen laguntzen du, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko zentroetan ikerketa-egonaldiak finantzatuz, ikertzaile doktoreen mugikortasun geografikoa erraztuz, ezagutza eta gaitasun zientifiko berriak eskuratzen lagunduz, nazioarteko lankidetza-sareak indartuz eta ezagutza transferituz. Horrek guztiak ikertzaileen eta ikerketa-taldeen gaitasuna eta lehiakortasuna hobetzea dakar, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sistema indartuz.

Bestalde, ezartzen da eskabidea sailaren egoitza elektronikoan modu telematikoan baino ezingo dela eskuratu, urtarrilaren 11ko 4/2022 Dekretua aplikatuz (4/2022 Dekretua, urtarrilaren 11koa, zeinaren bidez bitarteko elektronikoak erabiltzeko betebeharra arautzen baita ikerketarako laguntzen eta sarien eskabideetan eta gainerako izapideetan).

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan ezarritakoaren arabera (2024ko ekainaren 24ko EHAA, 123. zk.), Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak esleitua du ikerketa teorikoa eta aplikatua bultzatzea eta koordinatzea.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ikertzaile doktoreentzako mugikortasunerako laguntzen oinarri arautzaileak –agindu honen eranskinean agertzen dira– eta 2027rako deialdia onartzea.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA.– Aurretiazko izapidetzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espedienteen aurretiko izapidetzea araupetzen duen Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan jasotako ondorioetarako, agindu honetako dirulaguntzei buruzko ebazpena emateko garaian, kreditu egokiak eta behar bestekoak egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren 2027. urteko aurrekontu orokorretan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Eraginkortasuna.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 13a.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

ERANSKINA

OINARRI ARAUTZAILEAK

1. oinarria.– Xedea.

Agindu honen xedea da ikertzaile doktoreek Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko unibertsitateetan, ikerketa-zentroetan edo garapen teknologikoko zentroetan eta I+G+B arloko jarduera duten enpresetan mugikortasun-egonaldiak egiteko laguntzen oinarri arautzaileak onartzea eta 2027rako deialdia egitea.

2. oinarria.– Zuzkidura ekonomikoa.

1.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzen deialdiari erantzuteko diru-zuzkidura Euskal Autonomia Erkidegoko 2027ko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako da.

2.– Diru-zuzkidura laurehun mila (400.000) eurokoa da guztira; horietatik 320.000 euro 2027rako ordainketa-kredituei dagozkie, eta 80.000 euro 2028rako konpromiso-kredituei.

3.– Zenbateko hori honako laguntza-modalitate hauen artean banatuko da:

	Ordainketa-kredituak (2027)	Konpromiso-kredituak (2028)	Zuzkidura, guztira
A modalitatea	240.000	60.000	300.000
B modalitatea	80.000	20.000	100.000
Guztira	320.000	80.000	400.000

4.– Modalitateren bati esleitutako aurrekontu osoa agortzen ez bada, soberakina beste modalitateari dagozkion eskabideak finantzatzeko erabili ahal izango da, baldin eta, ezarritako lehentasun-ordenaren arabera balorazio nahikoa lortu ondoren, zenbait eskabide onuradun izan ez badira modalitate horri hasiera batean esleitutako zuzkidura ekonomikoa nahikoa ez izateagatik.

3. oinarria.– Modalitateak.

1.– Ikertzaile doktoreentzako mugikortasun-programa bi modalitateren bidez garatuko da:

a) A modalitatea: ikertzaile seniorren mugikortasuna, erakunde eskatzailearekin lotura iraunkorra duena. Deialdi honen ondorioetarako, lotura iraunkortzat hartuko da erakunde eskatzailearekiko lan- edo funtzionario-harremana, aldi baterako iraupen jakinik ez duena.

b) B modalitatea: ikertzaile juniorren mugikortasuna, erakunde eskatzailearekiko lotura ez-iraunkorrarekin. Ikertzaileak erakunde eskatzaileari lotuta egon beharko du gutxienez egonaldia amaitu arte. Era berean, finkatu daitekeen irakasle edo ikertzaile plaza bat bete beharko du.

Zehazki, honako lanbide-kategoria hauetako ikertzaileek edo programa hauei lotutakoek parte hartu ahal izango dute: Irakasle Laguntzaile Doktoreak, Irakasle Laguntzaileak, Ikerbasque Research Fellow programa, Ramón y Cajal programa eta Miguel Servet programa.

2.– Eskatzaileak dagokiona ez den beste modalitate bat adierazi badu, organo kudeatzaileak ofizioz atxiki ahal izango dio eskabidea modalitate zuzenari, baldin eta aurkeztutako dokumentaziotik eta espedienteko datuetatik argi eta garbi ondorioztatzen bada modalitate horretan parte

hartzeko baldintzak betetzen dituela. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango eskabidea zuzentzeko eskatzea, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren egiaztapen-jarduketak.

4. oinarria.– Erakunde onuradunak. Betekizunak.

1.– Agindu honetan aipatzen diren dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira, eskabidea egiten den egunean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11. artikuluan xedatutako betekizunez gain, betekizun espezifiko hauek betetzen dituzten pertsonak:

a) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile akreditatuak, eragile-kategoria hauetakoak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren eta haren ondorengo aldaketen arabera:

i) Unibertsitateetako ikerketa-egiturak.

ii) Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak (BERC).

iii) Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ).

iv) Zentro teknologikoak.

v) Ikerketa Sanitarioko Zentroak (CIS).

b) Parte hartzen duten ikertzaileak bere egituran sartzea eta nortasun juridiko propioa izatea.

2.– Ezingo dira erakunde onuradun izan honako egoera hauetako batean dauden pertsonak:

a) Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuak izatea, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaria egin dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota daudenak, hartzekodunen konkurtsoan deklaratuta daudenak (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek eragingarritasuna hartu badu), epailearen esku-hartzearen mende daudenak edo uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera desgaituta daudenak, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia amaitu gabe egonik.

c) Kausaren batean errudun deklaratua izateagatik, administrazioarekin egindako edozein kontraturen amaiera irmoa ebatzita izatea.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak honako lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean egotea: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea. Edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

e) Erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean izatea zerga-egoitza.

f) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan

zehaztutako moduan (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

g) Ebazpen irmo bidez dirulaguntzak lortzeko aukera galtzeko zehapena jaso izana, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean edo hala ezartzen duten beste lege batzuetan ezarritakoaren arabera. Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

h) LGTBI-fobia egin, bultzatu edo sustatu izana, bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea barne (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).

i) Zehatuta egotea Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

j) Egunean ez izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta segurtasun-betebeharrak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

3.– Erakunde eskatzaileak adierazi beharko du ez dagoela aurreko apartatuko a), b), c), d), e), g), h), i) eta j) letretan adierazitako kasuetan, eskabide-formulario elektronikoan jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez.

Hasiera batean, erantzukizunpeko adierazpenak prozeduran aurkeztu beharreko dokumentazioa ordezten du. Erantzukizunpeko adierazpenean jasotako alderdiak egiazkoak direla egiaztatzeko, ordeztutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute erakunde onuradun gisa proposatzen direnek, dagokion dirulaguntza emateko prozedura ebatzi baino lehen.

Hala ere, agintaritza eskudunak ezin badu egiaztagiria eman, horren ordez administrazio-agintaritza baten edo notario publiko baten aurrean egindako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.9 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Administrazioak ofizioz egiaztatuko ditu f) letran aurreikusitako inguruabarrak, bai eta berdintasun-planaren erregistroa ere, plan hori g) letran aurreikusitako Estatuko araudiaren arabera eskatzen den kasuetan, hala badagokio elkarreragingarritasunaren bidez, salbu eta eskatzaileak berariaz uko egiten badio egiaztapen horri edo, hala dagokionean, ez badu baimenik ematen. Kasu horietan, erakunde eskudunek emandako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

Erakunde eskatzaileak erabakitzen badu egiaztagiriak bere kabuz aurkeztea, eskabidea aurkezten den egunean eguneratutako ziurtagiriak erantsi beharko ditu.

5. oinarria.– Ikertzaileak. Betekizunak.

1.– Ikertzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Erakunde eskatzailearekin funtzionario- edo kontratu-lotura izatea, lanaldi osoko dedikazioarekin.

b) Erakunde eskatzailean zerbitzu aktiboan egotea laguntzaren xede den egonaldia gauzatzen den aldi osoan.

c) Doktore-titulua izatea. Titulua 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen lortu beharko da.

d) Erakunde eskatzailean gutxienez bi urteko antzinatasuna egiaztatzea.

e) Programa honen aurreko deialdien babesean emandako laguntzen bidez finantzatutako mugikortasun-egonaldi bat egin ez izana 2025ean edo 2026an.

f) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateei atxikitako ikertzaileen kasuan, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2025eko irailaren 2ko Aginduaren babesean emandako «A» edo «B» taldearen aitorpena indarrean duen ikerketa-talde batean integratuta egotea. Agindu horren bidez, 2026-2029 aldian Euskal Unibertsitate Sistemako ikerketa-taldeen jarduerak babesteko laguntzen deialdia egiten da.

2.– Eskabidea aurkezteko unean, 1. apartatuan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira, b) letran aurreikusitakoa izan ezik. Hala ere, egonaldiaren hasiera-datan baldintza guztiak bete beharko dira, eta egonaldiaren aldi osoan bete beharko dira.

6. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

1.– Diruz lagunduko diren egonaldiek ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko unibertsitateetan, ikerketa-zentroetan edo garapen teknologikoko zentroetan egitea, bai eta I+G+B arloko jarduera duten enpresetan ere, eta aldi baterako bizileku-aldaketa ekartzea. Destinoko zentroek ikerketa-eginkizunak esleituta izan beharko dituzte, eta entzute akademiko eta ikertzaile aitortua egiaztatu beharko dute laguntza-eskabidean aurkeztutako proiektuaren esparru zientifikoan, beren helburu zientifikoak lortzeko eta ikertzaileen hobekuntza profesionalerako berme izan daitezen.

b) 2027. urtean hastea, eta ikastetxe hartzailearen aldi akademikoarekin eta/edo ohiko jarduerarekin bat etorri beharko du, justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

c) Gutxienez 60 eguneko eta gehienez 180 eguneko iraupena izatea, zentro hartzaile bakar batean modu jarraituan garatzea eta ikerketa-jarduketa bakar bati lotuta egotea, zeinak «I. eranskinean» jasotako printzipioak errespetatu beharko baititu. Egonaldian zehar, ikertzaileak talde hartzailearen lan-ildoan integratu beharko dira, ikerketa-jarduerak gauzatuz edo goi-mailako elkartruke eta lankidetza zientifikoak ezartzera eta indartzera bideratutako beste jarduketa batzuk garatuz.

Hala ere, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak egonaldia aldi baterako eteteko baimena eman ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoi hauengatik:

i) Ikertzailearen iraupen luzeko aldi baterako ezintasuna.

ii) Odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaideen gaixotasun larria, ospitaleratzea edo heriotza.

iii) Haurdunaldiarekin, amatasunarekin, aitatasunarekin, haurdunaldiko edo edoskitzaroko arriskuarekin, adopzioarekin, adopzio-helburuko zaintzarekin edo familia-harrerarekin zerikusia duten egoerak.

iv) Aurreko apartatuetan aurreikusitakoen antzeko beste inguruabar batzuk, behar bezala justifikatuta, egonaldia eragozten edo aldi baterako etetea beharrezko egiten dutenak.

Egonaldia aldi baterako eteteko eskaera erakunde onuradunak aurkeztu beharko du Zientzia Politikarako Zuzendaritzan, horretarako prestatutako aplikazio informatikoaren bidez, hasieran eskatutako egonaldia amaitu baino lehen. Eskaera egiteko, zentro hartzaileko ikertzaile arduradunaren adostasuna beharko da. Gainera, behar bezala justifikatu beharko da etetearen arrazoia, eta egonaldia amaitzeko aurreikusitako data berriak adierazi beharko dira.

2.– Diruz lagunduko diren joan-etorriek ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

a) Egonaldiari zuzenean lotutako joan-etorriko joan-etorriak hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat. Ondorio horietarako, kontuan hartuko da ikertzailearen ohiko bizilekutik atzerriko bizilekura joateko bidaia, bai eta bizitoki horretatik ohiko bizilekura itzultzeko joan-etorria ere.

b) Joan-etorriak garraiobide publiko kolektiboetan egingo dira, egonaldia baino 10 egun natural lehenago eta/edo ondoren, gehienez ere. Salbuespen gisa, epe hori luzatu ahal izango da egonaldiarekin zuzenean lotutako arrazoiengatik, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak baimena eman ondoren. Luzapen hori ez da inola ere emandako egonaldiaren luzapentzat hartuko. Eskabidea, behar bezala arrazoitua, egonaldia hasi aurretik aurkeztu beharko da, horretarako gaitutako aplikazio informatikoaren bidez.

Hala ere, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak, salbuespen gisa eta behar bezala justifikatu ondoren, ibilgailu partikularra erabiltzeko baimena eman ahal izango du honako kasu hauetan:

i) Helmugara garraio publiko kolektiboaren bidez iristeko aukerarik ez dagoenean.

ii) Ikertzailearen familia eta lana bateragarri egitea zailtzen duten inguruabarrak gertatzen direnean.

iii) Ikerketa-jarduerari lotutako material, ekipo edo lanabes espezifikoak garraiatzea beharrezkoa denean, eta horiek garraio publiko kolektiboaren bidez lekualdatzeak haien osotasuna arriskuan jar dezakeenean, apurtzeko, hondatzeko, galtzeko edo beste edozein kalte egiteko arriskua dagoelako.

iv) Behar bezala justifikatutako beste edozein inguruabar gertatzen denean, baldin eta organo kudeatzaileak hura aplikatzea gomendatzen badu.

Onuradunak ibilgailu partikularra erabiltzeko baimen-eskaera aurkeztu beharko du, behar bezala arrazoituta, Zientzia Politikarako Zuzendaritzan, horretarako prestatutako aplikazio informatikoaren bidez, egonaldia hasi aurretik.

c) Egonaldian tokiko garraioak eragindako gastuak ez dira estaliko.

3.– Helburuko herrialdeak egonaldia egiteko bisa bat edo beste administrazio-agiri baliokideren bat behar duenean, hura lortzeko gastuak lagundu ahal izango dira diruz. Ondorio horietarako, gastu hautagarritzat hartuko dira agintaritza eskudunak eskatutako tasak eta, hala badagokio, dokumentazio hori izapidetzeko eta lortzeko behar-beharrezkoak diren garraio publiko kolektiboko joan-etorrien eta ostatuen gastuak.

4.– Deialdi honetatik kanpo geratzen dira biltzarretara, bilera zientifikoetara eta, Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren iritziz, 1. oinarrian ezarritako helburuarekin bat ez datozen bestelako egonaldietara joatea, bai eta Euskadin edo bizi den probintzian kokatutako zentroetan egonaldiak egitea ere.

7. oinarria.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Laguntzen zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen kontzeptu hauen arabera zehaztuko da:

a) Ostatu- eta mantenu-gastuetarako laguntzaren zenbatekoa 100 eurokoa izango da zentro hartzailean emandako egun bakoitzeko.

b) Joan-etorrietarako gastuetarako laguntzaren zenbatekoa honako taula honen arabera zehaztuko da:

Jatorriaren eta helmugaren arteko distantzia	Joan-etorrietarako gehieneko laguntza
1.000 kilometro arte	300 euro
1.001-2.500 kilometro	600 euro
2.501-11.000 kilometro	1.000 euro
11.000 kilometro baino gehiago	1.200 euro

Kilometrajea kalkulatzeko, http://es.distance.to estekaren bidez egindako kontsultaren emaitza hartuko da erreferentziatzat lerro zuzenean. Agindu honen ondorioetarako, ezarpen-zentroa dagoen probintziako hiriburua hartuko da jatorrizko hiritzat, eta zentro hartzailea dagoen herria hartuko da helmugatzat.

Ikertzaileek bidaia beren ibilgailuan egiteko baimena badute, gastua justifikatutzat joko da, 0,29 euro ibilitako kilometro bakoitzeko, betiere joan-etorrietarako emandako laguntzaren gehieneko mugarekin. Kilometroak kalkulatzeko, gidatze-ibilbidearen modalitateko http://es.distance.to estekaren bidez egindako kontsultaren emaitza hartuko da erreferentziatzat. Baimen-eskaera hori egiten ez bada, ibilgailu partikularrean egindako garraioak eragindako gastuak ez dira onartuko laguntza justifikatzeko unean.

c) 200 euroko osagarria emango da egonaldietarako, baldin eta bisa bat edo antzeko dokumentazio administratiboa izapidetu behar bada.

d) Asegurua. Mugikortasun-egonaldiaren ondorioz laguntzak jasotzen dituzten ikertzaileek, Gizarte Segurantzaren sistemaren arabera dagokien estalduraz gain, erantzukizun zibileko, istripuetarako eta bidaia-laguntzarako aseguru bat izango dute. Azken estaldura hori, interesdunak aldez aurretik eskatuta, ezkontideari edo izatezko bikotekideari zabaldu ahal izango zaio, bai eta atzerriko egonaldian harekin dauden 25 urtetik beherako seme-alabei ere.

2.– Laguntzak eman ondoren, eta behar bezala justifikatutako kasuetan, emandako laguntzaren baldintzak aldatu ahal izango dira 18. oinarrian zehaztutako inguruabarretan, baina horrek ez du inola ere ekarriko emandako dirulaguntza handitzea.

8. oinarria.– Organo kudeatzailea.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzari dagokio laguntza hauek kudeatzea.

9. oinarria.– Izapidetze elektronikoa. Eskabideak aurkezteko modua eta lekua.

1.– Eskabidea eta 10. oinarrian zehaztutako nahitaezko dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan (https://euskadi.eus/zerbitzuak/0286312) modu telematikoan eskuragarri egongo den inprimakiaren bidez bakarrik beteko dira, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren Legearen 14. artikuluaren eta Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 15. artikuluaren arabera. Eskabidearen edukia «II. eranskinean» dago.

2.– Aplikaziora ziurtagiri elektronikoaren bidez sartuko da (helbide elektroniko honetan daude argitaratuta identifikazio elektronikorako onartutako sistemak: https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/). Aplikaziora sartzen diren pertsonek baimena ematen diote Zientzia Politikarako Zuzendaritzari, deialdiaren organo kudeatzailea den aldetik, nortasun-datuak egiazta ditzan administrazio eskudunean, bai bitarteko elektronikoen bidez, bai eskuragarri dauden beste bitarteko batzuen bidez.

3.– Eskabide telematikoa osorik betetakoan eta 10. oinarrian adierazitako dokumentuak aplikazioaren bidez erantsitakoan, eskatzaileak eskabidea erregistratzeko prozesu elektronikoa osatu beharko du, hau da, sinadura elektronikoaren bidez eskabide bati balioa emateko, erregistratu dela jasota geratu beharko da. Hori ziurtatzeko, eskatzaileak dokumentuak aurkezteko erregistro elektronikoa/erregistroa lor dezake, «Ikusi egiaztagiria E/E» aukeraren bidez. Inprimaki ofizialak eskabidea identifikatzen duen zenbaki bat izango du.

4.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

10. oinarria.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskabidearekin batera, dirulaguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Egonaldian garatu beharreko ikerketa-proiektuaren memoria, izapidetze-aplikazio elektronikoan eskuragarri egongo den eredu normalizatuaren arabera egina. Memoria bost orrialdekoa izango da gehienez. Luzapen hori gaindituz gero, dagokion zuzenketa-izapidea egingo da.

b) Ikertzaile doktoreen curriculum vitaea, 2020ko urtarrilaren 1etik eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arteko aldiari dagozkion merezimenduak soilik jasoko dituena, eredu normalizatuan (izapidetze-aplikazio elektronikoan eskuragarri) edo eremu zientifikoan onartutako erabilera baliokidean.

c) Ikertzaile doktoreen ikerketa-jardueraren kalitate-adierazle nagusien laburpen eguneratua (argitalpen zientifikoak, ikerketa-proiektuak, biltzarretan parte hartzea, tesien eta patenteen zuzendaritza), 2020ko urtarrilaren 1etik eskabideak aurkezteko epea amaitu bitarteko aldiari dagozkionak. Aplikazioak eskatzaileen eskura jarriko du dokumentu hau egiteko eredu normalizatu bat.

d) Emandako zerbitzuen orria, honako hauek jasotzen dituena: lanbide-kategoria, antzinatasuna, administrazio-egoera eta ikertzailearen eta erakunde eskatzailearen arteko kontratu-harremana.

Ezin bada emandako zerbitzuen orria aurkeztu, erakunde eskatzaileak emandako ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, gutxienez datu hauek jasoko dituena: izen-abizenak, identifikazio-zenbakia, lanbide-kategoria, lan- edo zerbitzu-harremanaren hasiera-data, lanaldi mota, lotura mota eta administrazio-egoera.

Eskaera egiteko unean ikertzailea ez badago zerbitzu aktiboan, erakundeak bere administrazio-egoera egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du laguntzaren onuradun izanez gero, egonaldia hasi baino gutxienez 15 egun natural lehenago.

e) Ikertzaileentzako lizentzia edo lizentzia emateko konpromisoa, erakunde eskatzaileak emana eta ikerketako errektoreordeak edo pertsona eskudunak sinatua. Dokumentuak, gutxienez, egin beharreko egonaldiaren data zehatzak eta xedea jaso beharko ditu.

f) Ikerketa-talde hartzaileko arduradunaren curriculum vitaea, 2020ko urtarrilaren 1etik eskabideak aurkezteko epea amaitu arteko aldiari dagozkion merezimenduak soilik jasoko dituena, eredu normalizatuan (izapidetze-aplikazio elektronikoan eskuragarri) edo eremu zientifikoan onartutako erabilera-baliokidean.

g) Ikerketa-talde hartzaileko arduradunaren ikerketa-jardueraren kalitate-adierazle nagusien laburpen eguneratua (argitalpen zientifikoak, ikerketa-proiektuak, biltzarretan parte hartzea, tesien eta patenteen zuzendaritza), 2020ko urtarrilaren 1etik eskabideak aurkezteko epea amaitu bitarteko aldiari dagozkionak. Aplikazioak eskatzaileen eskura jarriko du dokumentu hau egiteko eredu normalizatu bat.

h) Ikerketa-talde hartzaileko arduradunaren konpromisoa, eskatutako egonaldian ikertzaile doktorea talde horretan sartuko duena, laguntzaren onuradun izanez gero. Dokumentuak egonaldiaren xedearen, aurreikusitako jardueren eta egonaldiaren data zehatzen deskribapena jaso beharko du.

i) Ikerketa-talde hartzailearen historia zientifikoaren eta akademikoaren laburpena, gehienez ere hiru orrialdekoa.

j) Ikertzaile doktoreak eta/edo ikerketa-talde hartzaileko arduradunak ikerketa-jarduera aldi baterako eten dutela justifikatzen duten egiaztagiriak, 10.2 oinarrian jasotako kasuen arabera.

k) Aseguruaren estaldura zabaltzeko eskatuz gero, eskatzailearen ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen harremana eta, hala badagokio, 25 urtetik beherako seme-alaben filiazioa egiaztatzen duen dokumentazioa.

2.– Oinarri honen 1.b), 1.c) 1.f) eta 1.g) apartatuetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ikertzaile doktore eskatzaileak eta/edo ikerketa-talde hartzaileko arduradunak bere ikerketa-jarduera eten badute inguruabar hauetakoren batengatik: iraupen luzeko aldi baterako ezintasuna, amatasuna, aitatasuna, edoskitzaroko arriskua, adopzioa edo harrera, edo unibertsitate-kudeaketako pertsona bakarreko karguak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea osatzen duten erakundeetako zuzendaritza-karguak edo administrazio publikoetako karguak, orduan apartatu horietan aipatzen den gehieneko aldia behar bezala egiaztatutako etenaldiaren proportzioan luzatuko da.

Hala ere, etenaldia hamar astetik gorako amatasun- edo aitatasun-egoerek eragindakoa bada, ebaluazioaren xede den aldia urtebetez luzatuko da seme edo alaba bakoitzeko.

3.– Dirulaguntzak kudeatzen dituen organoak edozein unetan eskatu ahal izango du jatorrizko agiriak aurkezteko, egiazkoak direla egiaztatzeko.

11. oinarria.– Eskabideak zuzentzea eta hobetzea.

1.– Dirulaguntzaren eskabideak oso-osorik betetzen ez badira edo nahitaez aurkeztu beharreko agiriekin aurkezten ez badira, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak hamar eguneko epea emango die erakunde eskatzaileei hutsak bete ditzaten edo arauzko agiriak aurkez ditzaten, eta ohartaraziko die ezen, agindutakoa bete ezean, eskabidean atzera egin dutela ulertuko dela. Hala

agintzen da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan (39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

2.– Errekerimendua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan argitaratuko da, 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluaren arabera, eta argitalpen horrek jakinarazpen-ondorioak izango ditu. Gainera, egintza hori entitate interesdunen eskura jarri ahal izango da egoitza elektronikoko «Nire karpetan», eta eskura jartzeak ez du ondoriorik izango epeen zenbaketan.

12. oinarria.– Emateko prozedura.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez ebatziko dira, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.1 artikuluan aurreikusitako lehiaketa bidez. Modalitate bakoitzerako lehiaketa independente bat egingo da.

Horretarako, aurkeztutako eta onartutako eskabideak alderatuko dira, 13. oinarrian finkatutako esleipen-irizpideak kontuan hartuta haien arteko hurrenkera ezartzeko. Puntuazio osoaren % 50 gainditu eta baloraziorik handiena lortu dutenei soilik esleituko zaie dirulaguntza, eranskin honen 2. oinarrian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte.

2.– Dagozkion emakidak egin ondoren, modalitateren batean aurrekontu-kreditua geratzen bada eta, aldi berean, beste modalitatean, ezarritako baldintzak bete arren, kreditu erabilgarria agortu delako laguntzarik lortu ez duten eskabideak badaude, eskabide horiek soberakinaren kontura finantzatu ahal izango dira, dagokion lehentasun-ordenari jarraituz, kreditu hori agortu arte. Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez egingo da esleipen hori.

13. oinarria.– Balorazio-irizpideak.

1.– Eskabideak irizpide eta puntuazio hauen arabera baremotuko dira:

a) Egingo den proiektu edo jardueraren interes zientifikoa eta bideragarritasuna (gehienez 12,5 puntu).

Puntu honetan, honako azpi-irizpide hauek baloratuko dira:

i) Helburuen zehaztasun-maila (gehienez 1,5 puntu). Bereziki baloratuko da horien argitasun, zehaztasun, mugaketa eta kalitate zientifikoaren maila. Gainera, lanaren metodologiarekiko eta irismenarekiko koherentzia-maila baloratzen da.

ii) Proiektuaren berritasuna eta garrantzia (gehienez 2 puntu). Bereziki baloratuko da ikerketa-ildo berriak irekitzeko edo egungo arazo zientifikoak konpontzeko egindako ekarpena. Era berean, bereziki baloratuko da proiektuak berrikuntza-argibideekin eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Planarekin duen lerrokatze-maila.

iii) Hautagaiak eta talde hartzaileak proposatutako helburuak betetzeko duten gaitasuna (gehienez 2 puntu). Bereziki baloratuko dira proiektuaren xede den ikerketa-arloko ikerketa-esperientzia eta proposatutako helburuak eraginkortasunez, aurreikusitako egutegiaren barruan eta xede-zentroak eskaintzen dituen baldintzetan gauzatzeko behar diren baliabide teknikoak eta materialak.

iv) Metodologia, lan-plana eta aurreikusitako kronograma egokitzea (gehienez 3 puntu). Bereziki baloratuko da lan-planaren eta proposatutako metodologiaren definizio-maila, koherentzia eta barne-logika. Era berean, kontuan hartuko da kronogramaren barruan proiektuaren mugarri nagusiak identifikatzeko erabili den xehetasun-maila, bai eta planteatutako helburuekiko eta egutegi erabilgarriarekiko bideragarritasuna ere.

v) Lortzea espero diren emaitzak eta hautagaiarentzat eta erakunde eskatzailearentzat izan dezaketen onura (gehienez 4 puntu). Bereziki baloratuko da proposatutako ikerketa-proiektuak izangaiaren ikerketa-ibilbidea hobetzeko duen potentziala, bai eta egin beharreko egonaldiak hautagaiak Euskadin egingo dituen etorkizuneko ikerketa-lerroetan izango duen inpaktua ere. Era berean, proiektuak erakunde eskatzailearen ikerketa-ildoak edo arlo estrategikoak indartzeko duen gaitasuna baloratuko da.

b) Ikertzaile doktoreen merezimendu zientifikoak, akademikoak eta kudeaketakoak (20 puntu, gehienez).

Honako azpi-irizpide hauek baloratuko dira:

i) Ibilbide zientifikoa eta argitalpenen kalitatea (gehienez 4 puntu). Atal honetan, liburuak, liburu-kapituluak eta aldizkari zientifikoetako artikuluak baloratuko dira, bakoitzaren jakintza-arloaren berezitasunak kontuan hartuta. Aldizkariei dagokienez, beren esparruko erreferentzia-indizeak hartuko dira kontuan, Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalaren 2025eko abenduaren 10eko Ebazpeneko irizpide espezifikoen arabera. Ebazpen horren bidez, ikerketa-jarduera ebaluatzeko irizpideak argitaratzen dira.

ii) Ikerketa-proiektuetan edo -jardueretan parte hartzea (gehienez 4 puntu). Erkidego-, estatu- edo nazioarte-mailako norgehiagoka-erregimeneko deialdi publikoetan lortutako ikerketa-proiektuak baloratuko dira; zehazki, Europar Batasuneko, nazioarteko beste organismo edo erakunde batzuetako, estatu-planetako edo autonomia-erkidegoetako lehia-programetan lortutakoak. Proiektu horiek kanpo-ebaluazioa izan behar dute, ikerketaren ebaluaziorako agentzia ofizial eta independente baten aldetik. Beste ikerketa-jarduera batzuen barruan, egindako ikerketa-jardueraren ezagutza transferitzeko kontratu edo hitzarmenekin zerikusia dutenak baloratuko dira. Kontuan hartuko da, halaber, proiektu edo ikerketa-jarduera horietako lidergoa.

iii) Ekarpen bereziak ikerketaren arloan (gehienez 4 puntu). Ekarpen berezi gisa, honako hauek baloratuko dira: Europako ikerketa-partzuergoetan parte hartzea, Europako Ikerketa Kontseiluaren (ERC) laguntzak lortzea, Europako Berrikuntza Kontseiluaren (EIC) laguntzak lortzea, ikerketa-programak koordinatzea eta azpiegitura zientifikoak sortzea.

iv) Doktorego-tesiak zuzentzea (gehienez 3 puntu). Amaitutako doktorego-tesien kopurua eta nazioarteko aipamena lortu duten tesien ehunekoa baloratuko dira.

v) Patenteak eta ezagutza transferitzeko beste ekintza batzuk (gehienez 3 puntu). Transferitutako patente eta aktibo zientifiko-teknologikoen (know-how) ustiapen-maila baloratuko da, lizentzia-kontratu bidez frogatuta. Ustiatzen egon gabe emandako patenteei dagokienez, emakida aldez aurreko azterketarekin egin bada bakarrik baloratuko dira (B2 mota, 2020a baino lehenagokoetarako). Kontuan hartuko da patentearen babesaren hedapena (estatukoa, Europakoa, nazioartekoa), eta gehiago baloratuko da babes handiagokoa.

vi) Nazioarteko kongresu garrantzitsuetan parte hartzea (gehienez 2 puntu). Atal honetan, bereziki baloratuko dira nazioarteko biltzarretan egindako ekarpenak, hala nola osoko txostenak, ahozko komunikazioak eta poster erako ekarpenak.

c) Talde hartzaileko ikertzaile arduradunaren merezimendu zientifikoak eta akademikoak (gehienez 12,5 puntu).

Honako azpi-irizpide hauek baloratuko dira:

i) Ibilbide zientifikoa eta argitalpenen kalitatea (2,5 puntu, gehienez). Atal honetan, liburuak, liburu-kapituluak eta aldizkari zientifikoetako artikuluak baloratuko dira, bakoitzaren jakintza-arloaren berezitasunak kontuan hartuta. Aldizkariei dagokienez, beren esparruko erre-

ferentzia-indizeak hartuko dira kontuan, Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalaren 2025eko abenduaren 10eko Ebazpeneko irizpide espezifikoen arabera. Ebazpen horren bidez, ikerketa-jarduera ebaluatzeko irizpideak argitaratzen dira.

ii) Ikerketa-proiektuetan edo -jardueretan parte hartzea (2,5 puntu, gehienez). Erkidego-, estatu- edo nazioarte-mailako norgehiagoka-erregimeneko deialdi publikoetan lortutako ikerketa-proiektuak baloratuko dira; zehazki, Europar Batasuneko, nazioarteko beste organismo edo erakunde batzuetako, estatu-planetako edo autonomia-erkidegoetako lehia-programetan lortutakoak. Proiektu horiek kanpo-ebaluazioa izan behar dute, ikerketaren ebaluaziorako agentzia ofizial eta independente baten aldetik. Beste ikerketa-jarduera batzuen barruan, egindako ikerketa-jardueraren ezagutza transferitzeko kontratu edo hitzarmenekin zerikusia dutenak baloratuko dira. Kontuan hartuko da, halaber, proiektu edo ikerketa-jarduera horietako lidergoa.

iii) Ekarpen bereziak ikerketaren arloan (2,5 puntu, gehienez). Ekarpen berezi gisa, honako hauek baloratuko dira: Europako ikerketa-partzuergoetan parte hartzea, Europako Ikerketa Kontseiluaren (ERC) laguntzak lortzea, Europako Berrikuntza Kontseiluaren (EIC) laguntzak lortzea, ikerketa-programak koordinatzea eta azpiegitura zientifikoak sortzea.

iv) Doktorego-tesiak zuzentzea (gehienez 2 puntu). Amaitutako doktorego-tesien kopurua eta nazioarteko aipamena lortu duten tesien ehunekoa baloratuko dira.

v) Patenteak eta ezagutza transferitzeko beste ekintza batzuk (1,75 puntu, gehienez). Transferitutako patente eta aktibo zientifiko-teknologikoen (know-how) ustiapen-maila baloratuko da, lizentzia-kontratu bidez frogatuta. Ustiatzen egon gabe emandako patenteei dagokienez, emakida aldez aurreko azterketarekin egin bada bakarrik baloratuko dira (B2 mota, 2020a baino lehenagokoetarako). Kontuan hartuko da patentearen babesaren hedapena (estatukoa, Europakoa, nazioartekoa), eta gehiago baloratuko da babes handiagokoa.

vi) Nazioarteko kongresu garrantzitsuetan parte hartzea (1,25 puntu, gehienez). Atal honetan, bereziki baloratuko dira nazioarteko kongresuetan egindako ekarpenak, hala nola osoko txostenak, ahozko komunikazioak eta poster erako ekarpenak.

d) Ikertzaileak hartzen dituen zentroaren kalitatea, proiektua aurkezten duen arlo zientifikoari dagokionez (gehienez 5 puntu).

Unibertsitate-zentroen kasuan, hautatutako zentroaren prestigioa baloratzeko, ikastetxeak «Academic Ranking of World Universities (ARWU) 2026» («Shanghai ranking» izenez ezaguna-goa) sailkapenean duen posizioa hartuko da kontuan, taula honetan oinarrituta:

Kokapena	Puntuazioa
1-100	5 puntu
101-200	4 puntu
201-300	3 puntu
301-400	2 puntu
401-500	puntu 1
501etik aurrera	0,5 puntu

2.– Oinarri honen 1.b) eta 1.c) apartatuetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, 2020ko urtarrilaren 1etik eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arteko aldiari dagozkion merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Hala ere, ikertzaile doktore eskatzaileak eta/edo ikerketa-talde hartzaileko arduradunak ikerketa-jarduera eten badute inguruabar hauetakoren batengatik: iraupen luzeko aldi baterako ezintasuna, amatasuna, aitatasuna, edoskitzaroko arriskua, adopzioa edo harrera, edo unibertsitate-kudeaketako pertsona bakarreko karguak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea osatzen duten erakundeetako zuzendaritza-karguak edo administrazio publikoetako karguak, orduan apartatu horietan aipatzen den gehieneko aldia behar bezala egiaztatutako etenaldiaren proportzioan luzatuko da.

Era berean, etenaldia hamar astetik gorako amatasun- edo aitatasun-egoerek eragindakoa bada, ebaluazioaren xede den aldia urtebetez luzatuko da seme edo alaba bakoitzeko.

3.– 1.a) irizpidearen balorazioa aurkeztutako ikerketa-proiektuaren memorian jasotako informazioan oinarrituta egingo da soilik, horretarako ezarritako eredu normalizatuaren arabera. Era berean, irizpide hori osatzen duten azpiirizpideetako bakoitzaren balorazioa egiteko, memorian dagokion apartatuan jasotako edukia baino ez da hartuko kontuan, eta ez dira kontuan hartuko memoriaren beste apartatu batzuetan edo beste dokumentu batzuetan jasotako datuak edo informazioa.

Halaber, oinarri honetako 1.b) eta 1.c) irizpideen balorazioa egiteko, 10. oinarriko 1.c) eta 1g) apartatuetan adierazitako dokumentazioan jasotako informazioa hartuko da kontuan. Informazio hori egiazkoa dela egiaztatu ahal izango da aurkeztutako curriculum vitaeen bidez. Behar bezala egiaztatutako merezimenduak, jarduerak eta ebidentziak baino ez dira baloratuko, eta ezin izango dira kontuan hartu berariaz aurkeztu edo dokumentu bidez justifikatu ez direnak.

4.– Bi eskabidek edo gehiagok lortutako azken puntuazioan berdinketa gertatuz gero, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera ezarriko da hurrenkera. Horretarako, berdinketa gertatzen bada trebakuntza baliokidea egiaztatzen duten sexu desberdineko ikertzaileen artean, emakumeak izango du lehentasuna.

Eskaera sexu bereko ikertzaileen artean egiten bada, eskabideak aurkezteko aplikazioak automatikoki esleitutako ausazko zenbakiaren bidez zehaztuko da lehentasuna, goranzko hurrenkeran. Zenbaki hori eskabidea aurkeztu izanaren egiaztagirian agertuko da.

5.– Behar diren neurriak hartuko dira eskabideen balorazioan edo prozedura horien ebazpenean parte hartzen duten pertsona guztien interes-gatazkak saihesteko.

14. oinarria.– Balorazio-batzordea.

1.– Balorazio-batzorde batek ebaluatuko ditu eskabideak. Honako hauek osatuko dute batzorde hori: Zientzia Politikarako zuzendaria, Amaia Esquisabel Alegría (batzordeburua izango da); Berrikuntzako zuzendaria, Maialen Agirre Pinedo; eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzako teknikaria, Carmen Fernández De Juana (idazkaria izango da).

2.– Balorazio Batzordeak aurkeztutako eskabideei buruzko txostenak eskatu ahal izango dizkie dagokion jakintza-arloan ospe eta ebaluazio-esperientzia aitortua duten ikertzaileei.

3.– Balorazio Batzordeak txosten bat egingo du, eta bertan jasoko da eskabideen ebaluazioaren emaitza, 13. oinarrian ezarritako irizpideen arabera. Txosten hori izango da Zientzia Politikarako zuzendariak ebazpen-proposamena egiteko oinarria.

15. oinarria.– Ebazpen-proposamena.

1.– Zientzia Politikarako zuzendariak egingo du ebazpen-proposamena, eta honako hauek jasoko ditu: erakunde onuradunen zerrenda, ikertzaileen identitatea, egonaldiaren hasiera- eta amaiera-data, zentro hartzailearen datuak eta dagokion zuzkidura ekonomikoa, 7. oinarrian aurreikusitako kontzeptuen arabera banakatuta; erabilgarri dagoen aurrekontua dela-eta eman ez diren erreserben zerrenda; ukatutako eta atzera egindako eskabideen zerrenda, ukatzeko edo atzera egiteko arrazoiarekin; eta baztertutako eskabideen zerrenda, baztertzeko arrazoiarekin.

2.– Behin-behineko ebazpena behin betiko bihurtuko da espedientean interesdunek adierazitakoez bestelako egitate, alegazio eta frogarik agertzen ez denean.

16. oinarria.– Ebazpena.

1.– Ebazpena Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeak emango du. Ebazpen horrek honako hauek identifikatuko ditu: erakunde onuradunak, ikertzaileen identitatea, egonaldiaren hasiera- eta amaiera-data, zentro hartzailearen datuak eta dagokion zuzkidura ekonomikoa, 7. oinarrian aurreikusitako kontzeptuen arabera banakatuta. Era berean, ordezkoen edo erreserbako pertsonen zerrenda eta haien lehentasun-ordena jasoko dira, hala badagokio, bai eta ukatutako eta atzera egindako eskabideen zerrenda ere, ukatzeko edo atzera egiteko arrazoiarekin, eta baztertutako eskabideen zerrenda, baztertzeko arrazoiarekin.

2.– Ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan argitaratuko da, 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluaren arabera, eta argitalpen horrek jakinarazpen-ondorioak izango ditu. Gainera, egintza hori interesdunen eskura jarri ahal izango da egoitza elektronikoko «Nire karpetan», eta eskuragarri jartzeak ez du ondoriorik izango epeen zenbaketan.

Abisu bat bidaliko da interesdunak jakinarazi duen gailu elektronikora edo posta elektronikora, jakinarazpen bat egoitza elektroniko horretan eskuragarri duela adierazteko.

Aurrekoa gorabehera, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak argitalpenen abisuak bidali ahal izango dizkie interesdunei, SMS edo posta elektroniko bidez. Abisu horiek ez dute inola ere jakinarazpen-ondoriorik izango.

3.– Iragarki-taula elektronikoan emate-ebazpena jakinarazi eta hurrengo hamar egun naturaletan gertatzen diren uko-egiteen kasuan, erreserben zerrendan agertzen diren eskatzaileei emango zaizkie laguntzak, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen bidez.

Emandako azken laguntzaren ondoren dauden pertsonei emango zaizkie laguntza horiek. Baldin bi modalitateetako batean erreserbarik ez badago, erreserben zerrendan pertsonak dituen modalitateko erreserben zerrendan lehenengo dagoen eskatzaileari eman ahal izango zaio laguntza.

4.– Modalitateren bat ebatzi eta aurreko puntuan ezarritakoa aplikatu ondoren soberako aurrekonturik geratzen bada, aurrekontu hori erabili ahal izango da erreserben zerrendan dauden eta modalitate horretako aurrekontu-kreditua agortu delako onuradun izan ez diren erakunde eskatzaileei laguntza esleitzeko.

5.– Oinarri honen 3. eta 4. puntuetan ezarritakoaren ondorioetarako, dirulaguntza emateko proposamena jakinaraziko die organo emaileak erakunde interesdunei, hamar egun naturaleko epe luzaezinean onar dezaten. Proposamena onartu ondoren, dirulaguntza emateko ebazpena emango da, eta erakunde interesdunei jakinaraziko zaie.

6.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta sei hilabete igaro ondoren berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute erakunde eskatzaileek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan xedatutako ondorioetarako.

7.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

8.– Denek jakin dezaten, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 26.2 artikuluak ezartzen duen bezala, emandako laguntzen publizitatea egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan argitaratuta.

17. oinarria.– Laguntzari uko egitea.

1.– Uko-egiteen berri eman beharko zaio Zientzia Politikarako zuzendariari, erakunde onuradunak eta laguntzaren ikertzaile esleipendunak sinatutako idazki baten bidez. Bertan adieraziko da zein diren uko egiteko arrazoiak eta uko-egite horrek zein egunetatik aurrera izango dituen ondorioak. Jakinarazpen hori aplikazio telematikoaren bidez egin beharko da, uko egiteak ondorioak izan baino gutxienez hamar egun lehenago.

2.– Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez onartuko dira uko-egiteak.

3.– Uko egitearen ondorio ekonomikoak, bateraezintasun arrazoiei lotuta ez dagoenean, bateraezintasun hori gertatzen den egunetik aurrera aplikatuko dira, bidegabeko ordainketak egin badira egin beharko diren itzulketei kalterik egin gabe.

18. oinarria.– Emandako laguntza aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, nolanahi ere, aldi berean beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badira, edota, hala badagokio, helburu bererako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36.3 eta 40. artikuluetan eta 9.4.m) eta 25. artikuluetan adierazitakoaren arabera, betiere dirulaguntzen arauak onuradun izateko ezartzen dituen gutxieneko baldintzak betetzen badira.

2.– Behar bezala justifikatutako beste kasu batzuk gorabehera, emandako laguntza aldatu ahal izango da, bereziki honako egoera hauetan:

a) Eskabidean aurreikusitako eta laguntza emateko kontuan hartutako egonaldiak egiteko datak aldatzea, betiere laguntza emateko arrazoi izan ziren helburuei eta baldintzei eusten bazaie.

b) Hasieran onartutako egonaldiaren iraupena aldatzea, betiere laguntza emateko arrazoi izan ziren helburuei eta baldintzei eusten bazaie.

c) Egonaldiaren zentro hartzailea aldatzea, baldin eta organo kudeatzaileak egiaztatutzat jotzen badu zentro berriak hasieran aurreikusitako zentroaren kalitate zientifiko eta akademiko baliokidea duela eta laguntza emateko oinarri izan ziren egonaldiaren helburuei eusten zaiela.

d) Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen beste edozein aldaketa, baldin eta laguntzaren xedea funtsean aldatzen ez bada eta organo kudeatzaileak horretarako baimena ematen badu.

3.– Emandako laguntza aldatzeko baimena emateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Onuradunak aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak jakin bezain laster eman beharko du haien berri, eta, betiere, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu baino lehen. Horretarako, emandako laguntza aldatzeko eskabide arrazoitua aurkeztu beharko du Zientzia Politikarako Zuzendaritzan, horretarako prestatutako aplikazio informatikoaren bidez.

b) Aldaketak ez du inola ere ekarriko emandako laguntzaren zenbatekoa handitzea.

c) Laguntzaren xede den jarduera, behin aldatuta, oinarri arautzaile hauetan ezarritako xede, helburu eta betekizunetara egokitzen jarraitu beharko da.

d) Aldaketa eragin duten inguruabarrak gerora sortutako eta behar bezala justifikatutako arrazoien ondorio izango dira, eta ezin izango zaizkio egotzi onuradunaren borondateari.

19. oinarria.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetako laguntzen erakunde onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan araututako betebeharren araubidea bete beharko dute, eta, zehazki, honako hauek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hamar egun naturaleko epean onuradunak ez badu berariaz uko egin, emandako dirulaguntza onartzen duela ulertuko da.

b) Dirulaguntza zer jarduera egiteko eman zen, horretarako erabiltzea, dirulaguntza emateko ebazpenean eta oinarri arautzaile hauetan ezarritako baldintzen arabera. Zehazki, erakunde onuradunek eskabidean eta deialdiaren ebazpenean izendatutako ikertzaileen aldeko jardueretarako soilik aplikatu beharko dituzte laguntzak.

c) Egonaldia osorik betetzea.

d) Diruz lagundutako egoeraren xedea edo izaera nabarmen aldatzen duen edozein gorabeheraren berri ematea. Horretarako, jardueren etenaldiak, aldi baterako absentziak, uko-egiteak eta bestelako gorabeherak gertatzen direnetik, gehienez ere hamabost eguneko epean jakinaraztea, horien berri emateko eta, hala badagokio, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak berariazko baimena eman dezan.

e) Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailarekin lankidetzan aritzea jarduera horien egiaztapen-, ikuskapen-, jarraipen- eta kontrol-prozeduretan.

f) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen dieten informazioa ematea.

g) Helburu bererako jasotako laguntza oro aitortzea.

h) Egonaldia amaitu eta hilabeteko epean, 20. oinarrian zehazten diren egiaztagiriak bidaltzea Zientzia Politikarako Zuzendaritzari.

i) Programa honen babesean egindako jardueren emaitzak argitaratzean edo zabaltzean, berariaz aipatzea deialdi honen finantzaketa duela. Horretarako, berariaz jaso beharko da programa honen bidezko finantzaketa, eta Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren ikurra sartu beharko da material edo argitalpen guztietan, «Ikermugikortasuna 2027 programaren bidez finantzatutako egonaldia» formularekin batera.

j) Lekualdatutako ikertzaileari emandako zenbatekoak ordaintzea. Erakunde onuradunak, ikertzaileak destinoko zentroan hasi izanaren jakinarazpena jaso ondoren, eta organo emailetik laguntzaren % 80aren ordainketa aurreratua jaso ondoren, lekualdatutako ikertzaileari helaraziko dio zenbateko hori.

Zentro onuradunak bere gain hartu baditu bidaiari, ostatuari eta/edo bisatuari dagozkion zenbatekoak, zenbateko horiek ez zaizkie ordainduko ikertzaileei.

k) Eskaera egiteko unean ikertzailea zerbitzu aktiboan egon ez bada, bere administrazio-egoera egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea, egonaldia hasi baino gutxienez 15 egun natural lehenago.

20. oinarria.– Laguntzaren justifikazioa.

1.– Egonaldia amaitu eta hilabeteko epean, onuradunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu aplikazio informatikoaren bidez:

a) Egindako egonaldiaren ziurtagiria, zentro hartzaileko ikertzaile arduradunak sinatutako idazki baten bidez, egonaldiaren hasiera- eta amaiera-datak adierazita.

b) Azken memoria, balantze zientifikoarekin, egindako lana deskribatzen duena, argitalpenen, patenteen edo ikerketaren beste edozein emaitzaren erreferentzia barne hartuta. Dokumentuak erakunde onuradunaren legezko ordezkariaren oniritzia izan beharko du.

c) Emandako laguntzaren kargura egindako gastuaren ziurtagiria, eredu normalizatuaren arabera. Era berean, fakturak edo froga-balio baliokidea duten dokumentuak aurkeztu beharko dira, bai eta diruz lagundu daitezkeen gastu hauen ordainagiriak ere:

i) Ostatu-kontratua eta, hala badagokio, egindako ordainketen egiaztagiriak.

ii) Garraio publiko kolektiboan egindako joan-etorriei dagozkien txartelak, fakturak eta ordainagiriak.

iii) Bisatu-gastuei edo antzeko dokumentazio administratiboari dagozkien txartelak, fakturak eta ordainagiriak.

d) Erakunde onuradunak ikertzaileari egindako ordainketen egiaztagiria.

2.– Ordainketa egiteko, organo kudeatzaileak edozein unetan eskatu ahal izango du jatorrizko dokumentazioa entregatzeko, benetakoa dela egiaztatzeko.

3.– Azkenean egindako egonaldiak hasieran emandakoa baino iraupen laburragoa badu eta 23. oinarriaren arabera ez-betetzetzat hartzen ez bada, onuradunak itzuli egin beharko du ostatu- eta mantenu-gastuengatik jasotako laguntzaren zati proportzionala, egin gabeko aldiari dagokiona, 24. oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

4.– Bidaia-gastuetarako emandako laguntzaren zenbatekoa bidaiaren benetako kostu justifikatua baino handiagoa bada, onuradunak kontzeptu horrengatik soberan jasotako zenbatekoa itzuli beharko du, 24. oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

5.– Bisa-gastuetarako edo antzeko administrazio-dokumentaziorako emandako laguntzaren zenbatekoa benetan justifikatutako kostua baino handiagoa bada, onuradunak kontzeptu horrengatik soberan jasotako zenbatekoa itzuli beharko du, 24. oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

21. oinarria.– Laguntza ordaintzea.

1.– Emandako laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

a) Lehenengo ordainketan, emandako laguntzaren % 80 ordainduko da, laguntza emateko ebazpena eman eta jakinarazi ondoren eta laguntza onartzeko ezarritako epea igaro ondoren, betiere berariaz uko egin ez bazaio.

b) Bigarren igorpena 2028an egingo da, diruz lagundutako jarduera amaitu ondoren eta 20. oinarrian aurreikusitako justifikazio-dokumentazioa aurkeztu ondoren. Dirulaguntzaren zenbatekoa laguntzaren likidazioaren arabera zehaztuko da, benetan egindako eta behar bezala justifikatutako gastuak kontuan hartuta, eta inola ere ez da izango emandako laguntzaren % 20 baino handiagoa.

2.– Entitate onuradunak eguneratua izan beharko du hirugarrenen altaren dokumentua. Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu behar da, egoitza elektronikoan ere eskuragarri dagoen zerbitzuaren bidez, helbide honetan: https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/

22. oinarria.– Beste laguntza eta dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Laguntza hau jasotzea bateraezina izango da helburu bera finantzatzera bideratutako beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik (Estatukoa, autonomia-erkidegokoa, tokikoa, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa) jasotako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

23. oinarria.– Ez-betetzeak.

1.– Onuradunak laguntza emateko baldintzak betetzen ez baditu, edo agindu honetan eta dirulaguntzen arloan aplikatzekoa den araudian adierazitako betebeharren bat betetzen ez badu, edo Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan adierazitako kasuren bat gertatzen bada, jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu.

2.– Proportzionaltasun-printzipioaren arabera, ez-betetzeen mailaketa irizpide hauen arabera egingo da:

a) Emandako laguntza osorik itzultzea ekarriko dute honako inguruabar hauek:

i) Justifikazio-agiriak ez aurkeztea 20. oinarrian ezarritako epean eta moduan.

ii) Laguntza emateko eskatzen diren betekizunak bete gabe edo horretarako eskatzen diren baldintzak ezkutatuz edo faltsutuz lortzea laguntza.

iii) 19. oinarrian aurreikusitako betebeharrak ez betetzea.

iv) Zentro hartzailean 60 egun baino gutxiagoko egonaldia egitea.

b) Ez dago laguntzaren zati bat itzultzea dakarren inguruabarrik.

24. oinarria.– Laguntzak itzultzea.

1.– Laguntza itzultzeko arrazoi izango dira 23. oinarrian aurreikusitako ez-betetzeak, bai eta 20. oinarriko 3., 4. eta 5. apartatuetan jasotako inguruabarrak ere.

2.– Itzulketa-prozedurak honako arau hauek beteko ditu:

a) Zientzia Politikarako zuzendariak itzulketa-prozedura hastea erabakiko du, eta interesdunari jakinaraziko dio, arrazoiak eta zergatiak adierazita, eta hamabost egun naturaleko epea emango

dio alegazioak egiteko eta egokitzat jotzen dituen dokumentuak aurkezteko. Prozedura hasteak, hala badagokio, egiteke dauden ordainketak etetea ekarriko du.

b) Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, edo horretarako emandako epea alegaziorik egin gabe igaro ondoren, prozedura amaituko da Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez. Ebazpen horretan zehaztuko da, hala badagokio, itzulketaren bidezkotasuna eta itzuli beharreko zenbatekoa.

3.– Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hamabi hilabetekoa izango da, prozedura hasteko erabakia hartzen den egunetik aurrera.

4.– Ebazpenean ez-betetzeren bat egon dela ikusiz gero, laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratuko da, eta, hala badagokio, bidegabe jasotako zenbatekoak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra ezarriko da, bai eta laguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte eska daitezkeen berandutze-interesak ere. Dagokion zenbatekoa gehienez bi hilabeteko epean ordaindu beharko da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori borondatez ordaintzeko epea izango da.

5.– Borondatezko epea igaro eta itzulketarik egin ez bada, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzan ogasunaren arloko eskumena duen organoari jakinaraziko dio, dagokion bidetik ordainaraz dezan, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

25. oinarria.– Datu pertsonalen tratamendua.

Eskatzaileen datu pertsonalak «Laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira. Informazio hau jasoko da:

• Arduraduna: Zientzia Politikarako Zuzendaritza, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila

• Helburua: ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.

• Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

– 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

• Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ogasun eta Finantza Saila.

– Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

• Eskubideak: eskatzaileak eskubidea du datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk baliatzeko ere.

• Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-capa2-eu.shtml

• Araudia:

– 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

I. ERANSKINA

PROIEKTUEN PRINTZIPIOAK

Proiektuek printzipio hauek errespetatu beharko dituzte:

a) Helsinkiko Adierazpenean (Munduko Medikuntza Batzarra), giza eskubideei eta biomedikuntzari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenean, giza genomari eta giza eskubideei buruzko Unescoren Adierazpen Unibertsalean, ikerketa biomedikoaren, datu pertsonalen babesaren eta bioetikaren arloan Espainiako legerian ezarritako betekizunak.

b) Gizakiengan ikertzea edo giza jatorriko laginak erabiltzea dakarten proiektuek Ikerketa Biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legean xedatutakoa bete beharko dute. Era berean, lege hori bete beharko dute giza enbrioi-jatorriko zelulak eta ehunak edo horietatik eratorritako zelula-lerroak erabiltzea berariaz eskatzen duten ikerketa-proiektuek.

c) Saiakuntza klinikoak eskatzen dituzten proiektuek Sendagaiekin egiten diren saiakuntza klinikoak arautzen dituen abenduaren 4ko 1090/2015 Errege Dekretuan aurreikusitakoa bete beharko dute.

d) Animaliekin esperimentuak egitea dakarten proiektuek indarrean dagoen lege-araubidean xedatutakoa bete beharko dute, eta, bereziki, otsailaren 1eko 53/2013 Errege Dekretuan xedatutakoa (esperimentaziorako eta beste helburu zientifiko batzuetarako –irakaskuntza barne– erabiltzen diren animaliak babesteko oinarrizko arauak ezartzen dituena).

e) Genetikoki eraldatutako organismoak erabiltzea dakarten proiektuek bete beharko dute Genetikoki eraldatutako organismoak konfinatuta erabiltzeari, nahita askatzeari eta merkaturatzeari buruzko apirilaren 25eko 9/2003 Legean eta lege hori garatzen duen erregelamendu orokorra onartzen duen urtarrilaren 31ko 178/2004 Errege Dekretuan xedatutakoa.

f) Agente biologikoak erabiltzea dakarten proiektuek Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta hura garatzen duten errege-dekretuetan ezarritakoa bete beharko dute, agente biologikoekiko esposizioarekin lotutako arriskuei dagokienez.

g) Material genetikoa eskuratzea edo trukatzea dakarten proiektuek Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenean, Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoei buruzko Nazioarteko Tratatuan eta Mintegiko Haziei eta Baliabide Fitogenetikoei buruzko uztailaren 26ko 30/2006 Legean ezarritakoa bete beharko dute.

II. ERANSKINA

ESKAERAREN EDUKIA

1.– Eskabidean, informazio hau jasoko da:

a) Erakunde eskatzailearen datuak: IFK, izen soziala, telefonoa, helbide elektronikoa eta helbidea.

b) Ikertzailearen datuak: identifikazio-zenbakia, izen-abizenak, sexua, jaioteguna, posta elektronikoa, telefonoa, doktore-titulua lortu zen eguna, ikerketa-taldearen zenbakia, saila, zentroa, eskatutako laguntza-modalitatea.

c) Egonaldiaren ezaugarriak: titulua, sektore sozioekonomikoa, egonaldiaren hasiera- eta amaiera-data, eskatutako egun-kopurua, EAEtik kanpoko zentro hartzailearen datuak (erakundea, zentroa, saila, helbidea eta kalitate-adierazleak), ikertzaile hartzailearen izen-abizenak, bisa izapidetzeagatiko gehigarriaren eskaera edo antzeko dokumentazio administratiboa, eta ezkontideari edo seme-alabei bidaia-asegurua zabaltzeko eskaera.

d) Beste mugikortasun-laguntza batzuk baliatzeari buruzko datuak.

e) Ikerketa-lana aldi baterako eteteari buruzko datuak (arrazoia, oharrak, hasiera- eta amaiera-data).

f) Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, honako hauei buruzkoa: 4.2 oinarrian jasotako betekizunak, beste laguntza batzuk eskatu edo ematea, eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ofizioz egiaztatzeko baimena.

2.– Eskabidearekin batera, dokumentazio teknikoa eta administratiboa aurkeztu behar da:

a) Egonaldian zehar garatu beharreko ikerketa-proiektuaren memoria.

b) Ikertzaile doktoreen curriculum vitaea.

c) Ikertzaile doktoreen ikerketa-jardueraren kalitate-adierazle nagusien laburpen eguneratua.

d) Emandako zerbitzuen orria.

e) Ikertzaileei lizentzia ematea edo emateko konpromisoa.

f) Ikerketa-talde hartzaileko arduradunaren curriculum vitaea.

g) Ikerketa-talde hartzaileko arduradunaren ikerketa-jardueraren kalitate-adierazle nagusien laburpen eguneratua.

h) Ikerketa-talde hartzaileko arduradunaren konpromisoa, eskatutako egonaldian ikertzaile doktorea talde horretan sartuko duena.

i) Ikerketa-talde hartzailearen historia zientifikoaren eta akademikoaren laburpena.

j) Ikertzaile doktorearen eta/edo ikerketa-talde hartzaileko arduradunaren ikerketa-jardueraren aldi baterako etetea justifikatzen duen dokumentazioa.

k) Aseguruaren estaldura zabaltzeko eskatuz gero, eskatzailearen ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen harremana eta, hala badagokio, 25 urtetik beherako seme-alaben filiazioa egiaztatzen duen dokumentazioa.